

KANALAK

Bezeroekiko komunikazioa

On-line komunikaziorako kanel batzuk daude. Lehenengoa webgune baten bidez egingo da, eta blog bat jarriko dugu gure produktua azaltzeko, herritarrek pixkanaka alta har dezaten. Hau ere mugikorretarako optimizatuta egongo da, jende gehiagorengana irits dadin. Blogean produktuaren deskribapena dago, non gure bulegoa aurkitu aztarna kokatzeko, ordaintzeko eta, zalantzaren bat izanez gero, helarazteko, eta galdera ohikoenak biltzen dituen atal bat dauka.

Facebook eta instagram orrialdeetan ere badugu pagina bat, non informazioa eguneratzen dugu egunean egonteko, eta influencers-ekin(@DragonJAR, @chemaalonso) harremanetan jartzen gara jende gehiagorengana iristeko.

On-line komunikazioaz gain, off-line komunikazioa ere badugu. Publizitate hesiak eta kartelak daude hiri osoaren inguruan.



Zerbitzuaren banaketa eta produktuen salmenta

Produktua, gobernuak onartzen duenean, hiri osoko kaleetan jartzen da, eta kokatuta dagoenean, erabili nahi duten bezero guztiek gurekin harremanetan jarri beharko dira, aurrez izendatutako bideren baten bidez. Horren ondoren, gure bulegora etorriko dira, proposatutako kopurua ordainduko digute, konfidentzialtasun-kontratuak sinatuko ditugu eta hatz-marka jarriko dute irakurgailuan, programan gurituta gera dadin.

Bezeroek alta eman ondoren, haiekin harremanetan jarraituko dugu. Zerbait hausten bada edo edozein matxura edo hobekuntza dela-eta botoiren bat aldatu behar bada, garaiz abisatuko da, eta ez da 10 minutu baino gehiago beharko konpontzeko, inor segurtasunik gabe gera ez dadin.

